

ESKOLAZ KANPOKO ROBOTIKA ETA TEKNOLOGIA JARDUERAK GURASOENTZAKO INFORMAZIOA

Ikaskuntza

Espazio kontrolatu eta seguru batean eta STEAM filosofia batetik abiatuta, diziplina anitzeko lana egiten dugu, pentsamendu kritikoa eta sormena sustatuz. Proiektuen bidez ikasten dute, ondo pasatzen eta aurrera egiten laguntzen diegun bitartean.

Edukia

Hezkuntza-robotikaren arloan eta hezkuntza ez-formalean dugun esperientziari esker, programa oso eta askotarikoa sortu dugu. Programa honek 7 blokeko ikastaroak ditu, bakoitza 4 saiotan.



Batez ere robotika eta bideojoko sorkuntza lantzen dugu "pieza" eta "lan bituala" tartekatuz.

Programa ikasturte bereko taldeentzat diseinatuta dago. Zailtasunak gora egiten du ikasturtez ikasturte eta ikasturte bakoitzaren barruan. Bloke bakoitzaren azken saioan, proba

bat egingo dugu "Kahoot!" bidez, zenbat ikasi duten ikusteko.

Bloke batzuek eduki gehigarria dute, nahi dutenek proiektua etxean lantzen jarrai dezaten.

Gure ikasleentzako Ikasgela birtual bat dugu, pasahitzarekin babestua, saioak egituratzeko eta ikasleek klasea errazago jarraitzeko. Ikasturte osoan etxetik sartu ahal izango dira (kontsultak egin, aparteko jarduerekin jarraitu, etxean lana erakusteko...)

Saioak euskaraz izango dira.

Hauek dira LH1tik LH6ra ikastaro bakoitzean erabiliko ditugun baliabide eta materialetako batzuk:

LH 1	LH 2	LH 3	LH 4	LH 5	LH 6
Teknologia sarrera Lego WeDo 2.0 Scratch Jr. Code.org BeeBot	Code.org Fitxak Lego WeDo 2.0 BlueBot Scratch Jr.	Scratch 3.0 Lego WeDo 2.0 Kodu Game Lab Makey Makey Code.org	Lego Spike Scratch 3.0 MakeBlock Kodu Game Lab Minecraft	Scratch 3.0 Lego Spike Kodu Game Lab Minecraft MakeBlock Esperimentuak	Lego EV3 Kodu Game Lab Scratch 3.0 Gimp Micro:bit V2 Minecraft



Talde txikiak


Hobeto lan egiteko eta gehio ikasteko asmoz, taldeek saio bakoitzeko 12-14 partaide baino gehiago izan ez ditzaten saiatzen gara. Talde bakoitzaren barruan 2 pertsonako taldeetan lan egiten dugu gehienbat.

Ikasleen Materiala

Behar den material guztia GaurkoTek-ek eramango du. Ikasleak USB (proiektuak gordetzen joateko) bat besterik ez du ekarri behar, baina koaderno bat eta boligrafo bat ekartzea ere gomendatzen dugu.

Multimedia baimena

Saioetan egiten ditugun argazkiak eta bideoak erabiltzeko eta gurasoei bidali ahal izateko, gurasoen baimena eskatuko diegu.



Jarraipena eta gurasoekin Komunikazioa

Irakasleek apuntatutako ikasleen jarrera eta lana gurasoei helarazten diegu ebaluazio fitxa batzuen bitarte urtean 2-3 aldiz. Hutsegiteen kontrola ere eramaten dugu.

Gurasoekin komunikazio arina bilatzen dugu, eta horregatik, sare sozialak eta Telegram mezularitza-aplikazioa erabiliko ditugu jakinarazpenak eta abar bidaltzeko.

Besteak

- **Minecraft-en zerbitzaria:** Jakin badakigu Minecraft oso gustuko duten eta sormena sustatzen duen programa dela. Hori dela eta, GaurkoTek ikasleentzako Minecraft zerbitzari pribatu batean sartzeko aukera izango dute.
- **Ikasturte amaierako diploma:** Oroitzapen modura ikastaroa amaitu duten ikasleei diploma bat emango diegu.

